


Gasteizko hegoalderako egiturazko antolamendua

HAPOaren berrikuspen partziala Armentia eta Goikolarra artean

Azalpena

2024/2025 ikasturtean Gasteizen garatuko da udalerriaren eskala egituratzailerak lantzeko Hirigintza VI ikasgaiko praktika. Hiriko hegoalde osatugabearen zati nagusia proposatzen da — Armentiatik Goikolarra auzora doana —, ikasleek taldeka —hiruzpalauka— eremu zehatz bat mugatzeko eta bertan antolamendu berri bat egiteko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zehaztasun-eskalan.



Antolamendu berrirako erabilera egokienak ikasleek erabakiko dituzte, eremuaren azterketaren ondorioz. Antolamendua handitik txikira definitzea gomendatzen da, sektore berrien mugaketatik¹ eta sistema orokorren diseinutik hasiz (kale nagusiak, parke nagusiak, ekipamendu handiak...).

¹ Orientazio gisa, Gasteizko Salburuko eta Zabalganako 14 bizitegi-sektoreen azalerak 15 ha eta 70 ha bitartekoak izan ziren. Batez bestekoa 36 ha-koa izan zen.

Eremuaren zati handi batean (100 ha inguru) hiri-parke bat egiteko asmoa dago aspalditik, Larragorri izenekoa [1], proiektua oso definituta ez badago ere. Gaur egun, parke horretako urmael nagusia ari dira eraikitzen [2], eta beste guztia ez dago erabat ziurtatuta egingo denik. Beraz, parkea erabat alda liteke —urmaela eraikitzen ari direla kontuan hartuz—, ondo justifikatuz gero.



Larragorri izeneko parkearen diseinua, 2018ko “2025 Estrategia” delako dokumentuan.

HAPO berrirako egindako proposamenak ere [3] alda litezke.

Eraikigarritasunak ere libreak dira, beti ere 2006ko Lurzoru Legeak [4] eta haren 2012ko garapen-dekretuak [5] baimendutakoaren barruan (eraikigarritasun gehieneko eta gutxienekoa, babes publikoko etxe kopurua, espazio libreak, ekipamenduak...).

Emateak

Lehen ematea (2025/2/24): Azterketa eta Helburuak:

- 1.- Aukeratutako eremuaren egungo egoeraren hirigintza-azterketa egin (hiriarekiko loturak, erabilerak, erabili gabeko partzelak eta eraikinak, arauak...).
- 2.- Antolamendu berria egiteko eremu zehatza mugatu (irudian gorritz dagoen eremua aldatu daiteke).
- 3.- Antolamendu berrirako helburu nagusiak zerrendatu, bai idatziz bai grafikoki (nahi bada, eskemen bidez).

Bigarren ematea (2025/3/24): Antolamendua:

- 4.- Antolamendu berriaren definizioa: bilatzen den irudi orokorra, oinean eta hiru dimentsioetan...
- 5.- Antolamendu berriaren hirigintza-eremu, sistema orokor eta kalifikazio global gutxi gorabeherakoak.

Hirugarren (eta azken) ematea (2025/5/5): Plana:

6.- Aurreko emateetako edukia, osatua. Bereziki, irudi orokorra, hirigintza-eremuak, sistema orokorrak, kalifikazio globalak eta eraikigarritasunak.

7.- Antolamendu-xehatuak egiteko helburuak eta irudi orokorrak edo eskemak.

8.- Lortu nahi den emaitzarako bestelako hirigintza-ordenantza edo -arauak.

Hiru emateetarako formatua:

Lehen bi emateak soilik paperean izango dira.

Hirugarrena —azkena—, bai paperean bai PDF —ez oso “pisutsu”— moduan (USB bidez, unean utzi eta itzuliko dena).

Hiru emateetako paperen tamaina librea da (DIN A2 edo DIN A3, ahal bada), baina DIN A4ra tolestuta emango dira.

Informazio grafikoa eta idatzia planoetan uztartzea gomendatzen da, ahalik eta modu grafikoan eta sintetikoenean.

Kartografia

Araba osoko plano bektorialak <https://web.araba.eus/eu/geoaraba> webgunetik jaitsi daitezke, hainbat formatutan, dxf-ak barne (Gasteizkoak bakarrik daude 1:5000 eskalako xehetasunarekin).

Katastroko planoak (zatika) hemendik jaitsi daitezke, dxf-ak barne: <https://catastroalava.tracasa.es/> .

GeoEuskadi webgunetik ere shp formatuko kartografia bektoriala jaitsi daiteke, ondoren GIS programa batekin dwg formatura pasa daitekeena: <https://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/eu/> .

Bestela ere, Gasteizko dwg plano bat (garbitu behar dena) hemendik jaitsi daiteke: <https://www.ehu.es/hirigintza/gasteiz.rar> (19,2 MB).

Erreferentziak

[1] Larragorri izeneko parkearen diseinua, 2018ko “2025 Estrategia” delako dokumentuan: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/16/04/81604.pdf> .

[2] Urmaelaren proiektua, URA agentziarena: <https://www.uragentzia.euskadi.eus/gasteizko-udalerrian-batan-eta-zapardiel-ibaien-uholdeetatik-babesteko-proiektua/webura00-contents/eu/> .

[3] HAPO berriaren Hasierako Onarpenerako dokumentua: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u_394194a9_1860b654c4a_7e03 .

[4] 2/2006 Lurzoru Legea: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2006/07/0603776a.pdf> .
Bereziki “Kopuruak eta estandarrak” kapituluan datoz bete beharrekoak (77. artikulutik 81. artikulura).

[5] 123/2012 Hirigintza-estandarren Dekretua:
<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/07/1203380e.pdf> .

Gasteizen, 2024ko ekainaren 18an
Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño